

Foru Aldundiak onartu du Errementari erosteko diru-laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiak 312.000 euroko diru-laguntza onartu du Errementari erosteko. Modu honetan, duela hilabete batzuk Udalak eta jabeak hitzartutakoa gauzatzeko modua egin da. Etorkizunean erabilera anitzeko eta herriko zerbitzuak edukitzeko eraikinak izango dira Errementari eta Serorategi. Albiste ona dudarik gabe zeraindarrontzat.

Udalak bultzatutako etxebizitzetarako izena emateko epea zabalik dago

Erregesoro-azpiko (frontoi ondoko) etxebizitzetarako proiektuak aurrera jarraitzen du. Bileran ireki batean Udalak urriaren 14an herriko interesatuei azaldu bezala, 3 eraikin joango dira eta bakoitzak 6 etxebizitza izango ditu; 18 guztira. Etxebizitza horiek metrotan eta ezaugarrietan hiru motak izango dira.

Etxebizitza horietakoren bat erosi nahi duten herritarrek urriaren amaiera arteko epea dute udaletxean izena emateko. Izan ere, zeraindarrek lehentasuna izango dute azaroa baino lehen izena emanez gero. Hortik aurrera, kanpokoei ere zabalduko zaie etxeak erosteko aukera. Informazio eta xehetasun gehiago nahi duenak udaletxera jo dezake.

Bartzelonara bidaia egin dute haur eta gurasoek

Urriaren 9tik 12ra, jai egunak aprobetxatuta, autobusa bete haur eta guraso Bartzelona aldera joan ziren. Hiru egunez, Bartzelonako hainbat leku bisitatu zituzten: Ramblak, auzo gotikoa, Camp Nou eta zientzia museoa (argazkian) besteak beste. Horrez gain, Port Aventura eta Tibidabo ere egin zuten txangoa, gaztetxoenen gozamenarako. Elkarrekin egun ederrak pasata, gustura itzuli ziren Zerain aldera Basarte Guraso Elkarteak antolatutako bidaiari parte hartutako herritar guztiak.



Egitarau betearekin dator kultur astea

Udazkenarekin batera heldu zaigu aurtengo kultur astea ere. Honatx egitaraua:

- **Asteazkena 20, 19:00etan.**

Zer jan ala izan. Elikadura eta bizitza orekatua. Hitzaldia. Jesus Larretxea.

- **Ostirala 22, 22:00etan.**

ALI - Amona kandelaria eta alfonbra hegalaria antzerkia. Aktoreak: Alfonso Diez eta Aitor Fernandino. Zuzendaria: Begoña Bilbao

- **Larunbata 23.**

Goizeko 10:00etan: *Burdinaren Mendian zehar ibilaldia.*

Arratsaldeko 17.30etan: *Bolatea Zerainen.* Mahai ingurua herriko bolariekin Liztormendi elkartearen. Ondoren bolatokian bolatan egiteko aukera izango da.

- **Igandea 24. Jubilatuen eguna.**

13.00tan: Meza Nagusia bertsolari eta Uharka abesbatzak lagundurik.

14.00tan: Bazkaria bertsolariek lagundurik Ostatu jatetxean.

- **Astelehena 25, 19:00etan.**

Ola Gizonak. Hitzaldia. Jose Luis Azpiazu.

- **Asteartea 26, 19:00etan.**

Alkoholaren eragina osasunean.



Gaixotasuna da. Hitzaldia. "Alcohólicos anónimos" eta senitatekoek emana.

- **Asteazkena 27, 19:00etan.**

Ola, -(t)egi, -korta, etxe hitzak Zerainen. Hitzaldia. Mikel Zalbide

- **Osteguna 28, 19:00etan.**

Arriskuak eta prebentzioa eremu elektromagnetikoetan: mugikorra, wifi-ak, eta abar. Hitzaldia. Asier Arregi

- **Ostirala 29, 22:00etan.**

Txoria, zaude ixilik emanaldia. Testua

Kuan Kruz Igerabidek eta musika Iñaki Telleriak

- **Larunbata 30.**

11.30tan: Herriko gaztetxoentzat marrazki rallya

- 14.00tan: Kantu bazkaria trikitilariek alaitua (txartelak Mandio dendan daude salgai).

- 19.00tan: Patata Tortila lehiaketa. (Parte hartzaileek izena Mandio dendan eman behar dute. Epea: urriak 27). Ondoren afari-merienda.

Historian atzera begira



1947an, Iruñean soldaduska egiten zeuden tokitik Telleriko Joxe Alustiza eta bere lagun Joxe Arakama zegamarra Nafarroako Bera aldera eraman zituzten maniobrak egitera "maquiak" zebiltzala eta. Berako talde bat 1944an, II. Mundu Gerran, Pirineoetan Espainiako militarrek eraikitako bunker eta nidoak aztertzen ari dira. Horietako batean "Viva Cerain, viva Cegama" eta Joxe Alustizaren izena agertu dira. Hori dela-eta, irailean Joxe Berako taldearekin izan zen nidoan bertan, hark duela 63 urte egindako idatzia ikusten.

Gaztina eta talo jana

Basarte guraso elkarteak, urtero bezala, gaztina eta talo jana antolatu du aurtengo ere. Azaroaren 6an izango da hitzordua. Arratsaldeko 3:30etan umeei gaztina biltzera joango dira mendira. Iluntzean, berriz, 6:30ak aldera, plazan talo eta gaztina jana egingo da herritar guztientzat. Ez da plan txarra udazken garairako!





Galtzue, galtzua

Korrika eta presaka gabiltza gaurkoan, motibo bat dela eta bestea dela. Bagatoz ordea, azken orduan bada ere. **Galtzu**arekin gatoz. Zeraingo haur gehienek eta gazte askotxok zer den ere apenas dakiten hitz batekin, antza denez. Adin batetik gorakoek badakite ordea **galtzua** zer den, eta tokatzen denean normal-normal darabilte orain ere. Bardeetan izan berriak dira Elena eta lagunak, aurreko batean, eta Nafarroako lautada horietan barrena zihoazelarik behin baino gehiagotan esaten omen zioten elkarri: "orain ere hor dabilta ardiik, galtzuun".

Zer da **galtzu** delako hori? Elenak ziplo erantzun dit telefonoz: "garia ebagi eta soroetan gelditzen dena". Gariaren lasto-zurtaina alegia, lehenik eta behin. Ez hori bakarrik, gero ikusiko dugunez, baina lehen-lehenik hori. Gure hiztegi nagusiak (OEHK) ere definizio argia ematen du, **galtzu** hitza dela eta. Lau eratako definizioa, konkretuki: *rastrojo*, *granza*, *rastrojera* eta, azkenik, *tallo (de maíz)*. Besterik badirudi ere ez dago alde handi-handirik definizio batetik bestera. Ikus ditzagun laurak, hurrenez hurren:

1. **Rastrojo; paja**. "Caña de trigo" "Caño de paja, galzuba". Adibide argiak eskaintzen ditu hiztegiak, leku batean edo bestean, adiera horrezaz. Batez ere Bizkai-Gipuzkoetakoak dira adibideok. Iparraldean ere eza-guna da ordea hitza, zenbait idazle-ren testigantza aintzakotzat hartzen bada. Formari dagokionez, azkenik, **galtzu**, **galtzo** eta **galtsu** ageri dira han-hemen. Horra non eta nork: **galtzu** (Bizkaierazko eremuan ger-ple-arr-oroz-m-gip; Gipuzkoan, Goierri eta Tolosan; Añibarro, Dogson, Lar 5), **galtsu** (Añ (V)), **galtzo** (Bizkaiko Arratian). Ref.: A (**galtzu**, **galtzo**); Iz Arantzazu-Oñati; Ibarra Dima.

2. **Granzas**. Trigo menguado que, después de la trilla, queda sin descascarillar; cascarrilla u hondones de trigo". Hona adibide ezagunetako batzuk: "**Galtzua batu**, recoger el residuo del trigo". Lauaxetaren Bide Barrijetan, esate baterako, honela ira-



kur liteke: **galtsu ganian** lotan ixarra: "Sobre las pajas". Ibiñagabeitiak, berriz, honela dio bere Virgil-en: "**Galtzu** ariñak eta orbelak ere bira-biraka". Multzo honetakoak dira beste adibideok ere: "galtzoakaz azpia bigunduta". "Galtsuari garija kendu". "Zaldittegiko **galtzu** ganera". Hona, bukatzeko, Erkiagaren aipamen argia: "Sabaiko **galtzu** bedarzte".

3. **Rastrojera**. Adibiderik ez da falta, inola ere, hirugarren adiera horrekin. Orixek, esate baterako, honela dio bere *Mireion*: "Nagusiak bi idi parerekin bialdu zian **galtzua** urratzera. "(V-m-gip), terreno baldío. **Galtzu** daukagu lurra, tenemos baldío el terreno". Kandido Izagirrek, azkenik, esaldiok jasoak ditu Arantzazu eta Oñati aldean: "**Galtzu** daó, **galtzúa**: así queda al cortar el trigo".

4. **Tallo de flor de maíz**. Azken adiera hau beste hiruetatik zertxobait urrundu egiten da. Aurreko guztiak gariaren hondakinak dira nolabait, eta oraingoan artoaz ari gara. Artoa moztutakoan lur-azalean zutik gelditzen den zurtaina adierazi nahi dela pentsa liteke. Beraz, lehenengo adieraren zabalkuntza semantikoz sortua dela esan liteke, huts egiteko beldur handiegirik gabe.

Aspaldiko hitza denez, eta luze-zabal hedatua, eratorrizko forma ugari ditu berekin: batetik **galondo**, **galtzondo** modukoak. Bestetik, bere diminutibo tipikoa: **galtzutxo**: Ormaetxetar Lontzik bere Ipuintxuak liburuan dioenez, "**galtzutxua** dakus-

ku iñoren begian / ta zurik be ezta-kusgu, geienez, geurian".

Badu **galtzu** horrek bestelako hitz eratorririk ere. Esate baterako, **galtzukoi**. Hiztegiak dioenez, "nombre de una variedad de caracol (*Helix caespitum*). "Begira zenbat [barakullu] saskian: mojatxo, arakoi ta **galtzukoi**". Orixek esana da hori ere, bere *Mireion*. Hor dago, era berean, **galtzuskur** edo **galtzuzkur**: "rastrojo de trigo" omen da hori ere, **galondo** bezala. Azkenik, hor dago **galtzutza**: pajar, montón de paja. Adibide hau eskaintzen digu bertan Erkiagak: "Bere etzangu beartsuan, **galtzutzan** gaua emoteko asmoz".

Zergatik ari da **galtzu** hitza **galtzen**? **Galtzurik** ez dagoelako, ia apurrik ere; gaur egun Nafarroara edo Arabara joan behar duzu, gutxienez, **galtzua** zer den benetan ikusteko edo ikasteko. Euskara etxean eta etxebueltan ikasten dute ordea haurrek eta gazteek, lehenik eta behin. Gero, beste maila batean, eskolan, liburuetan eta, agian, telebistan. Leku meharra du **galtzuak**, horietan guztietan. Ez da harritzekoa, hortaz, hizauntalde gazteen artean bizirik ez duen kontzeptuari izendapen berariazko-rik gordetzen inor gutxi saiatzea. Gehienez ere adin batetik gorako zeraindarrek, umetan oraindik galsororik (eta, beraz, horren ondoriozko **galtzurik**) ezagutu zutenek dute hitz jatorra gogoan, eta Bardeetara bidean berez bezala ahoratzen zaie. Biba zuei.

Mikel Zalbide eta
Elena Mendizabal



Xagu-txoko



Babesetik

IRAILA	al	ar	az	og	or	lr	ig
			1	2	3	4	5
Euria (l/m)			0	2	0	0	0
C° altuena			33	30	32	31	38
C° baxuena			12	17	10	12	12
	6	7	8	9	10	11	12
Euria (l/m)	0	15	0	1	0	0	0
C° altuena	35	27	27	24	30	34	24
C° baxuena	15	15	11	12	8	10	14
	13	14	15	16	17	18	19
Euria (l/m)	0	0	0	7	3	0	0
C° altuena	26	31	32	21	16	23	26
C° baxuena	10	9	11	14	15	12	5
	20	21	22	23	24	25	26
Euria (l/m)	0	0	0	0	12	9	1
C° altuena	28	33	30	26	18	20	19
C° baxuena	8	16	14	16	13	11	10
	27	28	29	30			
Euria (l/m)	0	0	0	1	GUZTIRA: 51L		
C° altuena	23	20	29	20	ALTUENA: 38°		
C° baxuena	7	9	5	12	BAXUENA: 5°		

Udari agur ona

Irailean, uda eguraldi onarekin bukatu dugu eta udazkenari sarrera are hobe eman diogu. Gauak freskoak, 5º taraino ere jaitsi da termometroa, eta egunez eguzkiak ederki berotu gaitu 38ºtara igoz. Zeru urdinak eta presio altuaren ondorioz hegazkinak pasatzean horrelako arrastoak utzi dizkigute: bost hegazkin ifarretik hegora eta beste bi mendebaldetik, ekialdera gurutzatuz ikusi ahal izan ditugu, egun batzuetan.



Zeraindarrak Berlingo maratoian



Sei herritarrek Berlingo maratoia korritu zuten joan den irailaren 26an. Guztiek bukatu zuten eta zerbeza bat lasai edateko moduan gainera. Argazkia maratoia hasi aurretik ateratakoa da Berlingo Parlamentuaren aurrean. Ezkerretik eskuinera eta goitik behera: Ion Muñoz, Aitzol Telleria, Iker Aizpeolea, Jexux Ezeizabarrena, Urko Larrea eta Mikel Iturrioz.

Herri-bilera urriaren 19an egingo da

Udal hauteskundeetarako prestatzeko hirugarren herri-bilera egingo da urriaren 19an, asteartea. Ohi bezala, bilera udaletxeko ganbaran egingo da iluntzeko 7etan. Herritar denei dei egiten zaie parte hartzera.

Mandio taberna oporreatatik itxiko dute

Urriaren 18tik 31ra Mandio taberna itxi egingo dute oporrak direla eta. Hala ere, kultur astea garai horretan denez, hainbat egunetan irekiko dute iluntzetan. Oraindik zehaztu gabe badago ere, ekintza garrantzitsuenak direnean irekita egongo da.

Kzgunea urrian

Kzgunea irekitzeko urriko bi egunetako bigarrena hilaren 26a izango da. Egun horretan, asteartea, Susana arduraduna arratsaldeko 4etatik 8etara egongo da hala nahi duten erabiltzaileak atenditzeko.